

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

3236

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 26koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita «Bilboko Metropoli Trenbidearen 5. Linea eraikitzeako proiektua. Galdakao-Ospitalea tarteak» ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrenda, eta titularrei dei egiten baitzaie okupazioaren aurreko aktak egiteko.

BMTko 5. linea berria Sarratuko (Basauri) eremuan hasiko da eta Galdakaoko Ospitalean amaituko da. Ekialdera Bilbao Metropolitarran muga egiten duen azken udalerrria den Galdakaoko biztanleei eta Basauriko Sarratu auzoari zerbitzua emateko diseinatu da.

Xede horretarako, lineak bost geltoki ditu ibilbidean, bat Basaurin eta beste laurak Galdakaon: Sarratuko geltoki intermodala (Basauri), Aperribai, Bengoetxe, Galdakao hirigunea eta Ospitalea.

Galdakao–Ospitalea tarte hau 4+340 KPan hasten da, Aperribai-Galdakao aurreko tarte amaitzen den lekuan, eta Ospitaleko geltokia gainditu ondoren bukatzen da. Proiektuaren barruan sartzen dira lineako tunela (aurreko tartearekiko loturatik tartearen amaieraraino), Puentelatorreko larrialdietarako irteera eta Ospitaleko geltokia, haitzuloan diseinatuak.

2022ko urriaren 25eko Ebazpenaren bidez, «Bilboko Metropoli Trenbidearen 5. Linea eraikitzeako proiektua. Galdakao-Ospitalea tarteak» onetsi zen. 2022ko abenduaren 20an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Geroago, eraikuntza-proiektuaren aurrekontua zuzentzeko beharra ikusi zen, eta, beraz, aurrekontu berri bat idatzi zen horretarako. Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2023ko martxoaren 6ko Ebazpenaren bidez, «Bilboko Metropoli Trenbidearen 5. Linea eraikitzeako proiektua. Galdakao-Ospitalea tarteak» berriro onartu zen. 2023ko martxoaren 24an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Proiektu berri honetan sartutako aldaketak proiektuaren aurrekontuari buruzkoak baino ez dira, eta, beraz, 2022ko abenduaren 26ko Ebazpenaren bidez jendaurrean jarritako eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendari ez zion eragiten, ezta aldatzen ere.

Ebazpen horren bitartez onartzen den proiektuaren xedea da Bilboko Metropoli Trenbidearen 5. linea berria hirugarren zatian ezartzeko egin behar den obra zibila eraikuntza mailan definitzea. Linea hori Euskotrenek ustiatzen du, eta Galdakaoko Ospitalearen eta Usansolo auzoaren inguruan amaitzen da.

Galdakao-Ospitalea tarteak Galdakaoko udal-mugartean garatzen da, eta Ospitaleko Geltokia eta Puentelatorreko larrialdietako irteera barnean hartzen ditu.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazioa biltzen du. Horretarako, desjabetzeen eranskinen ageri dira lurzati zerrenda eta planoak.

Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2022ko abenduaren 26ko Ebazpenaren bidez, proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko prozedurari hasiera ematea eta desjabetzeen eranskinaren zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zen. Interesdunei jakinarazi zitzaion eta 2023ko urtarrilaren 10ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian,

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta «Deia» eta «El Correo» egunkarietan argitaratu zen. Ondasun eta eskubideen zerrenda hori Galdakaoko udaletxeko iragarki-taulan ere jarri zen.

Izapide honetan zortzi alegazio-idazki aurkeztu dira; Zerbitzu Teknikoetara bidali dira, neurriak hartzeko eta kontuan hartzeko, akatsak zuzendu behar badira ere. Erantzun individualizatua bidali zaie.

Jendaurrean jartzeko epea amaituta, ukitutako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda egin da.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituren arloko jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren desjabetze-espeditenteak izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Abenduaren 19ko 26/2022 Legeak aldatutako Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, trenbide-lineen proiektuak, horien tarteak edo trenbide-azpiegituren beste elementu batzuk onesteak edo lehendik daudenak aldatzeak lursail berriak erabiltzea eskatzen badu, horietan identifikatutako eragindako ondasun eta eskubideen Nahitaezko Desjabetzearen ondorioetarako, onura publikoko edo gizarte-intereseko deklarazioa egingo da, eta okupatu beharreko eta presakoa dela deklaratu da. Legezko adierazpen horrek nahitaezko desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan aurreikusitako prozedurara jotzeko ahalmena ematen dio administrazioari; hartara, lurra okupatu edo ukitutako ondasunak eskuratuko ditu, ondasun edo eskubide horiek deskribatzen dituzten aktak egin ondoren, titularrak identifikatuz eta baloraziorako beharrezkoak diren datuak jasoz, eta, aldez aurretik, okupazioaren aurreko gordailu gisa perituekin zehaztutako zenbatekoa ordainduz edo kontsignatuz, eta, hala badagokio, okupatzeko presak eragindako kalteen zenbatekoa ordainduz edo kontsignatuz.

Ondorioz, egindakoa ikusita, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 20., 21. eta 52. artikuluetan eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregulamendua onartzen duen 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren 56. artikuluan eta horrekin bat datozen eta oro har aplikatu beharreko gainerako xedapenetan xedatutakoarekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Bilboko Metropoli Trenbidearen 5. Linea eraikitze proiektua. Galdakao-Ospitalea tarteak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda onartzea, eta hura okupatu beharra deklaratzeko, abenduaren 19ko 26/2022 Legeak aldatutako Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan adierazitako ondorioekin.

Bigarrena.– Zerrenda horretan agertzen diren jabeei dei egitea, Galdakaoko Udalera joan ondoren, ukitutako ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak egiteko, zerrenda horretan adierazitako egun eta orduetan, eta, hala badagokio, horiek formalki okupatzeko; hala ere, beharrezkoa izanez gero, aukera egongo da lursaila bertaratzeko, interesdunek hala eskatuta.

Egintza horretara interesdunek berek joan beharko dute, edo haien izenean jarduteko behar bezalako baimena jaso duten ordezkoei; haien titulartasuna egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte (eskritura publikoak, Jabetza Erregistroko ziurtagiriak edo informazio-oharrak, etab.), bai eta beren eskubideak egiaztatzen dituen beste edozein agiri ere. Egoki iritziz gero, beren perituekin eta notario batekin batera aurkeztu ahal izango dira, baina hori haien kontura izango da.

Era berean, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, interesdunek alegazioak aurkez ahal izango dituzte okupazioaren aurreko akta egiten den egunera arte, akatsik egonez gero horiek zuzentzeko. Horretarako, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzara jo beharko dute idatziz (Donostia kalea 1, Lakua 1, 01010 – Vitoria-Gasteiz).

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaiokete Azpiegitura eta Garraioetako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsua jartzeko idazkia organo honi edo Azpiegitura eta Garraioetako sailburuordeari zuzendu behar zaio.

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango dute, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Nolanahi ere, aurretik aukera izango dute errekerimendua egiteko, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 26a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2023ko uztailaren 5a, asteazkena

ERANSKINA

GALDAKAOKO UDALERRIA

Finka zk.	Katastroko erref.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Deialdia Galdakaoko Udala 2023-07-18
			Erabateko Desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi baterako Okupazioa	
238	004-037	Ruperta Ugarte Larrearen jaraunsleak	505	540	1.166	09:00
239	004-036	Ana M. ^a Ibarrechebea Bengoetxea Inmaculada Ibarrechebea Bengoetxea	0	0	537	09:40
240	004-178	María Carmen Ilardia Ugarte	144	37	1.037	10:10
241	004-216	Ignacio Celaya Bañales Jokin Zelaia Bañales	0	26	67	10:40
242	004-215	María Carmen Celaya Estancona	0	13	103	11:05
243	004-214	Vicente Celaya Estancona	0	0	155	11:30
250	016-214	Javier eta Koldobika Larrea Rekalde Asier Altuna Larrea	0	38	0	12:00
251	016-134 y 135	Javier eta Koldobika Larrea Rekalde Asier Altuna Larrea	0	214	0	12:00
255	1047-02002	Javier eta Koldobika Larrea Rekalde Asier Altuna Larrea	0	477	0	12:00
252	016-201	Iñaki, Begoña eta Jaime Asua Abasolo Joseba Andoni Abasolo Leibar M. ^a Ángeles Leibar Artega	0	56	0	12:35
256	1047-02003	Jose Luis Echevarri Aguirre	0	146	0	13:00
258	016-082	Monserrat Larrea Zubiate	11	76	167	13:30

Finka zk.	Katastroko erref.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Deialdia Galdakaoko Udala 2023-07-19
			Erabateko Desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi baterako Okupazioa	
259	016-083	Ziortza Unamunzaga Uriarte	25	1	140	09:00
264	1047-03005	Gorka eta Iker Arana Abio	4	135	158	09:30
266	1047-03006	Gorka eta Iker Arana Abio	0	72	0	09:30
266 INT	1047-03006	Iker Serrano Gil	0	72	0	10:00
265	1047-03004	Oscar Vicioso Rodriguez Nerea Urquiza Uribechebarria M. ^a Aparecida Oliveira de Oliveira	0	73	136	10:30
265 CULT	1047-03004	M. ^a Aparecida Oliveira de Oliveira	0	73	136	10:30
267	016-070	M. ^a Antonia eta Mariano Sagarminaga Aguirre	53	35	259	11:00
268	1047-03008	M. ^a Antonia eta Mariano Sagarminaga Aguirre	0	190	395	11:00
278	016-057	M. ^a Antonia eta Mariano Sagarminaga Aguirre	21	0	75	11:00
279	1047-01003	M. ^a Antonia eta Mariano Sagarminaga Aguirre	5	0	43	11:00
282	016-058	M. ^a Antonia eta Mariano Sagarminaga Aguirre	98	0	137	11:00
292	016-066	M. ^a Antonia eta Mariano Sagarminaga Aguirre	0	0	28	11:00
272	1047-07002	Amaia Irigorria Zabala Rosario Barona Rosa M. ^a Barandiaran Urresti Carme Irigorria Zabalaren jaraunsleak	432	91	91	11:50
286	016-072	Amaia Irigorria Zabala Rosario Barona Rosa M. ^a Barandiaran Urresti Carme Irigorria Zabalaren jaraunsleak	0	148	1.394	11:50
298	016-059	Amaia Irigorria Zabala Rosario Barona Rosa M. ^a Barandiaran Urresti Carme Irigorria Zabalaren jaraunsleak	0	0	4	11:50
262	1036-1001	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra – Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren Bizkaiko Probintzia Zuzendaritza	142	2.303	1.308	12.25

2023ko uztailaren 5a, asteazkena

Finka zk.	Katastroko erref.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Deialdia Galdakaoko Udala 2023-07-19
			Erabateko Desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi baterako Okupazioa	
270	1047-09001	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra – Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Bizkaiko Probintzia Zuzendaritza	8	0	708	12:25
271	1047 – 07003	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra – Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Bizkaiko Probintzia Zuzendaritza	136	37	251	12:25
262 INT 01	1036-1001	Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza. Ogasun Sailburuordetza. EJKo Ekonomia eta Ogasun Saila	142	2.303	1.308	13:10
270 INT 01	1047-09001	Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza. Ogasun Sailburuordetza. EJKo Ekonomia eta Ogasun Saila	8	0	708	13:10
271 INT 01	1047 – 07003	Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza. Ogasun Sailburuordetza. EJKo Ekonomia eta Ogasun Saila	136	37	251	13:10
262 INT 02	1036-1001	Osakidetza. EJKo Osasun Saila	142	2.303	1.308	13:30
270 INT 02	1047-09001	Osakidetza. EJKo Osasun Saila	8	0	708	13:30
271 INT 02	1047 – 07003	Osakidetza. EJKo Osasun Saila	136	37	251	13:30

Finka zk.	Katastroko erref.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Deialdia Galdakaoko Udala 2023-07-20
			Erabateko Desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi baterako Okupazioa	
260	016-081	Justa eta Nerea Sagarna Bernaola	0	40	100	09:00
273	1047-07001	Igone González Ealo	0	6	12	09:30
274	1047-05002	Pedro M. ^a Unzueta Iurrebaso M. ^a Ángeles Meñica Azcuenaga	21	17	17	10:00
275	1047-05001	Blue Computing SL Lekubarri 2000 SA Lupiola SL	14	20	20	10:30
276	016-053	Blue Computing SL Lekubarri 2000 SA Lupiola SL	32	0	0	10:30
283	016-056	Blue Computing SL Lekubarri 2000 SA Lupiola SL	351	0	501	10:30
285	016-055	Blue Computing SL Lekubarri 2000 SA Lupiola SL	71	210	570	10:30
287	1047-04009	Josefina Echevarri Llano M. ^a Paz Echevarri Llano Jose M. ^a Echevarri Llanoren jaraunsleak M. ^a Dolores Echevarri Llanoren jaraunsleak Antonio Torcal Simonen jaraunsleak	0	124	849	11:30
290	016-073	Josefina Echevarri Llano M. ^a Paz Echevarri Llano Jose M. ^a Echevarri Llanoren jaraunsleak M. ^a Dolores Echevarri Llanoren jaraunsleak Antonio Torcal Simonen jaraunsleak	448	225	1.216	11:30
295	016-062	Josefina Echevarri Llano M. ^a Paz Echevarri Llano Jose M. ^a Echevarri Llanoren jaraunsleak M. ^a Dolores Echevarri Llanoren jaraunsleak Antonio Torcal Simonen jaraunsleak	353	0	4.171	11:30

2023ko uztailaren 5a, asteazkena

Finka zk.	Katastroko erref.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Deialdia Galdakaoko Udala 2023-07-20
			Erabateko Desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi baterako Okupazioa	
288	1047-04008	Jose Elicegui Jaureguiren jaraunsleak Juana Elicegui Jaureguiren jaraunsleak Cesareo Elicegui Jauregui Mercedes eta Julia Elicegui Meñika	1397	195	981	12:10
291	016-067	Jose Elicegui Jaureguiren jaraunsleak Juana Elicegui Jaureguiren jaraunsleak Cesareo Elicegui Jauregui Mercedes eta Julia Elicegui Meñika	0	0	19	12:10
297	016-060	Jose Elicegui Jaureguiren jaraunsleak Juana Elicegui Jaureguiren jaraunsleak Cesareo Elicegui Jauregui Mercedes eta Julia Elicegui Meñika	0	0	3.363	12:10
289	1047-04007	Julia Elicegui Meñika María Mercedes Elicegui Meñika	195	0	27	12:45
289 INT	1047-04007	Sandra Elizabeth Chaves Calderón	195	0	27	13:10

Finka zk.	Katastroko erref.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Deialdia Galdakaoko Udala 2023-07-21
			Erabateko Desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi baterako Okupazioa	
293	016-064	Elisa Zarandona Sagarmínaga	0	0	99	09:00
294	016-063	María Dolores eta María Soledad Arana Dañobeitia	1	0	80	09:30
296	016-061	María Begoña Unamunzaga Ereño	66	0	1.752	10:00
299	004-151	Ane Miren Bidaurratzaga Saiz	0	0	158	10:30
300	004-008	Pedro M. ^a Unzueta Iurrebaso M. ^a Ángeles Meñica Azcuenaga	0	0	144	11:00
300 CULT	004-008	Javier Aurrecoechea Ibarrechebea M. ^a Carmen Zarandona Arriaga Ricardo Zarandona Arriagaren jaraunsleak	0	0	144	11:30
301	1042-01004	M. ^a Carmen Zarandona Arriaga Ricardo Zarandona Arriagaren jaraunsleak	0	0	12	11:50
237	1063-10001	Galdakaoko Udala	0	28	56	12:40
245	004-281	Galdakaoko Udala	0	0	23	12:40
261	016-277	Galdakaoko Udala	0	82	91	12:40
277	016-282	Galdakaoko Udala	19	0	1	12:40
277-1	1047-09001	Galdakaoko Udala	21	111	111	12:40
280	16-281 1047-09001	Galdakaoko Udala	1.262	15	381	12:40
281	1047-08001	Galdakaoko Udala	30	0	0	12:40
284	16-278	Galdakaoko Udala	1.782	0	231	12:40
254	1047-9001	Herri Lanak Saila Bizkaiko Foru Aldundia	0	232	6	13:15
257	016-270	Herri Lanak Saila Bizkaiko Foru Aldundia	0	493	52	13:15
263	1047-09001	Herri Lanak Saila Bizkaiko Foru Aldundia	9	480	287	13:15

2023ko uztailaren 5a, asteazkena

TUNELEAN EGITEA
GALDAKAOKO UDALERRIAN

Finka zk.	Katastroko erref.	Jabea	Tunela	Deialdia Galdakaoko Udala 2023-07-18
			Metro linealak	
244_T	004-047	Juan Agustín Alonso Martínez M.ª Asunción Folio Toledo Ruperta Ugarte Larrearen jaraunsleak	3	09:00
247_T	004-045	Ruperta Ugarte Larrearen jaraunsleak	13	09:00

Finka zk.	Katastroko erref.	Jabea	Tunela	Deialdia Galdakaoko Udala 2023-07-21
			Metro linealak	
245_T	004-281	Galdakaoko Udala	13	12:40